2019·2020

Deustuko ikastola

Bombas de calor aire-agua compactas

NOVEDAD

Lo que ahorran tus clientes, lo gana el planeta

Adelántate al futuro con la nueva **aroTHERM plus**

La bomba de calor más innovadora del mercado con exclusiva tecnología Vaillant de refrigerante natural:

- Máxima eficiencia energética Clase A+++.
- SCOP hasta 6,48 (Clima Cálido s/EN14825)
- Es la más silenciosa del mercado: 28 dB(A) a 3 metros.
- Logra temperaturas de hasta 75ºC sin resistencia o apoyo eléctrico.
- Máxima eficiencia (Clase A+) y confort en ACS, 50% mayor volumen diario y duchas extra.

Ideal para obra nueva y rehabilitación, cumple con la normativa CTE y NZEB.

La solución perfecta con energía fotovoltaica.

¿Para qué esperar al futuro si ya podemos disfrutarlo?

Descúbrela en vaillant.es/arothermplus

Refrigerante Natural PCA 3

225 veces más sostenible

Vaillant

Confort para mi hogar

Sarrera

Aurten bizi izan dugun ikasturtea ez da ohikoa izan, duda barik, martxoaren hasieran Osasunerako Munduko Erakundeak (OME) pandemia izendatutako COVID-19 kutsakorra Euskal Herrira ere iritzi izan delako. Guztion aldetik esfortzu paregabea egin behar izan dugu aurrera egiteko. Normalean izaten ditugun arazoei beste batzuk gehitu zaizkie: beldurrak, ziurgabetasunak, teknologia, tele-lana... Baina aurrera jarraitu dugu eta ahalik eta hoberen egiten saiatu gara ikasleengatik, gugatik, familiengatik, ikastetxeagatik. Batzuetan oso ondo atera zaigu, zoragarri, eta beste batzuetan, seguru, ez horren ondo. Baina ahalegin ezagatik, ez da izan.

Askotan komunikabideetan agertu diren berriak guretzat, zuzendaritza taldekoontzat, oso frustragarriak izan dira agindu ofizialik heltzen ez zelako, edo egun batean gauza bat esan hurrengoan beste bat izateko... Gu ere berriak izan gara egoera honetan.

Gainera, ikasturte hau zuzendaritzako aldaketa batzuekin hasi dugu. Alde batetik, DBHko ikasketaburutzan Olga Lopez hasi da. Hainbat ikastetxe deberdinetan lanean ibili ondoren aurreko ikasturtetik Deustuko Ikastolan lanean diharduena. Beste alde batetik, aspaldi Ikastolako irakasle izandako Ainhoa Rementeriak idazkari postua betetzeko proposamena onartu eta bete du.

Ahalik eta hoberen egiten saiatu gara. Izan ditugun hanka sartzeak, seguru izan ditugula, parkatzea espero dugu. Beti hanka-sartze horiek konpontzen ahalegindu gara.

Bukatzeko, ezinbestekoa da Zuzendaritza taldeak komunitate osoari egin duen lanagatik, esfortzuagatik eta ahaleginengatik eskerrak ematea: irakasleriari, ikasleei, sendiei, langile guztiei ...

2019-20 ikasturtea ere gainditu dugu!

Mila esker guztioi!"

2019-2020 ikasturteko ZUZENDARITZA TALDEA

Aurkibidea

3 AGURRA. AURKIBIDEA
4 JUBILATZEN DIRENEI AGURRA
5 KAROLA GORTU EGIN OTE ZAIGU?
6 ETXEAN SORTZEN
7 LAN GELA
9 HH 2
10 HH 3
11 HH 4
12 HH 5
13 HH-LH MUSIKA
14 LH1
15 LH2
16 LH3
17 LH4
18 LH5
19 LH6
20 LH ENGLISH CORNER
22 LH6 ANTZEZPENA
23 DBH1
24 DBH2
26 DBH3
27 DBH4
28 DBH4 GURE AZKEN URTEA...
29 DBH4 ARTZERKIGINTZA
30 DBH MUSIKA
31 BIBLIOTEKA
34 HH ARGAZKIAK
38 LH ARGAZKIAK
46 DBH ARGAZKIAK
54 IRAKASLE ETA LANGILEEN ARGAZKIAK
56 GURASOEI ESKERRAK
57 EUSKARA BATZORDEA
58 ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK
- KIROLA
- KULTURA

La Librería de Deusto
Deustuko Liburudenda

UMEEN ETA GAZTEENTZAKO LITERATURA
BIGARREN ESKUKO LIBURUAK
ELABERRI (BELTZA ERE BAI)

LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL
LIBROS DE SEGUNDA MANO
NOVELA (TAMBIÉN NEGRA)

ZIENTZIA FIKZIOA
HIZKUNTZ LIBURUAK
SAIOA
TURISMO GIDAK
KOMIKIAK

CIENCIA FICCIÓN
LIBROS DE IDIOMAS
ENSAYO
GUÍAS DE VIAJE
COMICS

HIZKUNTZA GUZTIAK
TODOS LOS IDIOMAS

Plaza de San Pedro, 4
48014 Deusto-Bilbao
Tfno: 944 764 281
Parada Deusto

www.lalibreriadedeusto.com liburudenda@lalibreriadedeusto.com

Ondo merezitako erretiroa

Ikasturte honetan lau irakasle dira ondo merezitako erretiro garaira heldu direnak. Bi ikasturte hasieran, Agurtzane Azurmendi eta Imanol Ziarsolo eta beste biak ikasturtearen amaierarekin batera , Blanca Bustillo eta Gabriel Nieves. Laurek dute ibilbide oparoa eta ahaztezina Deustuko Ikastolan.

Imanol eta Gabri

Ikastolako, ikasleek esaten duten moduan, "mitikoak" jubilatzen ari dira. Horien artean, gure Imanol eta gure Gabri kutunak daude. Denok ezagutzen ditugunez, zer esango dizuet?

Lehena jubilatzen Imanol izan da, zenbat urte eman dituzu ikastolan, Imanol? Zure amarekin hasi zinen, eskolaurrean eta, beti bezala, iraultza egiten, berrikuntzak sartzen, ume guztiak eskuekin margotzen, Mª Jesúsekin ipuinak sortzen... Ezin zara geldirik egon, sormenak berak mugiarazten zaitu, eta , Julio Verneren antzera, gauza pilo bat aurreikusi dituzu. Hor dago Olagarro proiektua, bitartekaritza... (erabateko berrikuntza), handik aurrera hasi dira bizikidetzak, behatokia, bizikasi eta gauza horiek guztiak. Gogoratzen duzu zenbat antzerki egin ditugun ikasleek aurrera ateratzeko? Ziur nago ikasle horien bihotzean zaudela.

Beste alde batetik, gure Gabriel daukagu. Gabriri buruz ere zer esango dizuet ez dakizuena. Zenbat urte elkarrekin... ! Urte batzuengatik ez zen nire irakaslea izan. Ikasketaburua "por excelencia"(zenbat urte Gabri? 10 baino gehiago...). Gabrielek esandakoa beti kontuan hartzen da, gauzak lasai eta inor molestatu gabe astiro-astiro egiten dituelako. Zu ere ibili zara leku batetik bestera OHOn, la Salle zaharran, gero DBHn oraingo ikastolan eta

beti ahal izan duzun guztietan laguntzen ibili zara. Ikasleek beti diote " Maten izan dudan irakaslerik hoberena Gabriel izan da", eta ez bakarrik Maten , pertsona moduan ere "un grande".

Zuek bazoazte eta irakasle asko , ni barne, umezurtz sentituko gara ikastolan, baina badakit zer edo zer behar izanez gero, zuen laguntza izango dugula. Mila esker irakatsi didazuen guztiagatik, gehienbat arlo pertsonalean.

Orain, zuek jubilazioa topera disfrutazea da nire desioa, eta dudarik gabe egingo duzue. Dastatu bizitza goitik behera , eta etorri ikastolara kontatzera. Beti egongo gara zuek ikusteko prest;)

CRISTINA

Agurtzane

Agurtzane Azurmendi, Bermeoko Eleizalde Ikastolan (1977-1981) eta Getxoko Geroa ikastolan(1981-1982) ibili zinan lanean, 1982-83 ikasturtean Deustuko Ikastolara heldu zinan arte. Aldaketa ugariren lekuko izan zara urte guzti horietan: OHOko erdi zikloa (hirugarren, laugarren eta bosgarren mailak) , OHOko goi zikloa (seigarren, zazpigarren eta zortzigarren mailak),LOGSE, LHko 5. eta 6. mailak, LHko 3. eta 4. mailak. Zuzendaritza taldean ikasketaburu izanda amaitu dozu zure irakaskuntza jarduna.

Irakaslea izateaz gain Ikastolako gurasoa izan zara. Zure hiru seme-alabak Ikastolako ikasleak izan dira eta 1982an lehenengoa sartu zanetik 2013an gazteena atera zan arte 31 ikasturte jarraian ama izateagatik marka egin dozu, Iñaki bide lagun izanda. Euskaldun peto-petoa, euskaltzale amorratua, edozein zalantza, itzulpen edo lanetarako zu ondoan izatea altxorra izan da, berehalako erantzuna emoteko prest, nekaezina, etorrera handikoa. Memoria kontuetan ere parekorik ez: gertaerak gogoratzeko, ikasleen gorabeherak, ikasle ohien izen-abizenak, istorioak...Oso lagungarria egoera askotan.

Zehatza, zuzena, erabakiorra, ilusioz eta indarrez eutsi dautsozu lanari ondo pasatzeari bere garrantzia eta tokia emoten ahaztu barik baina era berean kideen egoeraz arduratuta.

Zenbat kontu, zenbat barre eta negar, zenbat bidaia, zenbat argazki...elkarregaz!

Blanca

Blanca Bustillo, orain dela 24 ikasturte etorrita Deustuko Ikastolara, Deustuko Eskolako D ereduko beste irakasleekin batera eta B ereduko ikasle batzu eta D ereduko ikasle guztiekin. Euren artean zure alaba, 6 urte zituela.

Oposaketak gainditu zenituenetik hainbat ikastetxetan ibili zara: Txomin Arestin, Olabeagan, Getxoko Andra Mari eskolan eta Deustuko Eskolan.

Ingeleseko espezialista bezala aritu zara gurean, askotan baldintza ez oso egokietan. Ingeleseko gela lortzea ez zen erraza izan baina ekinaren ekinez lorpen handia izan zen. Gaur egun egiten den erabilera estima ezina da. Ikasleek zurekin landutako hainbeste abesti gogoratzen dituzte, Britney Spearsen "Lucky" haien artean.

5. eta 6. mailako tutorea ere izan zinen. Ikasleek oso gustura entzuten zituzten zuk ahoz irakurritako liburuak, Nikolas txiki edo El caballero de la armadura oxidada tartean.

Zurekin lan egitea oso erreza izan da, alaitasuna, maitasuna, laguntasuna, praktikotasuna jaso dugu zugandik. Zikloko koordinatzaile ere ihardun duzu urteetan, lanerako eta zikloa batzeko eragin handia adieraziz.

Mozorrotzeko lehena, zure mozorroari beti kutxu berezia ematen diozu . Haloween arrakastatsuak ez dizu lan makalik ematen. Kalejiretan animatzen ere lehena zara , musikaren gurdia umoretsu gidatzen eta hor goaz guztiok, zure atzetik.

Proiektu berrietan eta desberdinetan sartzeko beldurrik edo nagirik ez duzu izan. Zenbat bufanda egin dute zure ikasleek art workshop-en?

Langile guztiek merezi dute eta behar dute erretiroa. Zuok ondo merezi duzue zuona. Nabarituko da zuon falta baina zuon lana, zuon uzta hor izango dugu, zuon presentziarekin batera, edozein gelatan, edozein dokumentutan, edozein argazkitan.

Eskerrik asko eta beti arte!

Karola gortu egin ote zaigu?

Karola garabia kezkatuta dabil bolada honetan. Ez dauka argi entzumen apur bat galdu dauen edo zer demonio gertatzen dan. Azkenaldian ez dauz ikastolako umeen barreak, algarak eta patio orduetako zaratak asmaten. Ez dauz gurasoak ezta amuma aitzitzeen elkarrizketak entzuten eta, egia da! ez da ikaratzen golak ospatzeko botatzen dabezan bolanderakaz ere.

Berak badaki zeozer arraroa gertatzen dabilela eta ikastolara hurreratu da magia lagun intxisu bilakatuta.

Ene! Ez dago inor eta ez da jaieguna! Gelak hutsik, arimarik bez. Pasabideetako isiltasuna hain da nabarmena su-itzalgailuen arteko ikamikak ere entzuten direla. Eta zer esanik ez, patioetako bakardadeaz, Atxagak bere liburuaren bigarren atala idatziko luke.

Baina gure Karola ez da erraz ikaratzekoa eta beti aurrera begira dabil, itxaropena bularrean eta kementsu. Plan bat du eta galanta ganera!

Goizetan arin izartuten da eguzkiaren lehenengo izpiekaz eta beragaz berbetan orduek emoten dauz eta askotan iretargia be batuten da. Hiruren artean badabiltzez munduko arazo guztiak konpontzen eta hau ere segiduan arteztuko dabe.

Algarak, irriak, patioko olgetak, pasabideetako marmarak, bizipozak, neska-mutikoen zantzoak, aldarriak partida irabazitakoan, eskaileretako gora-beherak, . . . Karolaren kolore gorria biztuko dabe eta egun honeetan gero eta gorriago dabil. Deustuko bihotzak ere taupadak hartzen hasi dira.

Tomate kolorea duela Karolak esaten dau neure amumak eta berak asko daki koloreeri buruz ta tomateei buruz.

Etxean sortzen argazkia

Etxean egon behar izan dugu denbora luzean, eta bitartean gure buruak eta gorputzak gauza ezberdinak sortzen eta ekoizten egon dira etengabe.

Guztion artean erakusketa bat osatu eta partekatzen gaude ikastolako web orrialdean aurkituko duzun "Etxean Sortzen" bloggaren bitartez.

Hona hemen erakusketara bidalitako lehenengo lanak.

LANEN ARGAZKIAK .....





MENDI MARTXA

Pagasarriko igoera

2018-2019 ikasturtean, "Lan Gela" izendatutako proiektua sortu genuen Deustuko Ikastolan.

Irakasteko beste era batzuk eskeintzen duen gela bat da, behar desberdinak dituzten ikasleentzat. Bizipen irakaskuntza oinarri izanez.

Zorionez, lan handiz eta gogo onez gauzatutako proeiktua, aurten ere jarraipena izan du, eta konfinamendua heldu zen arte, buru-belarri ibili ginen lanean. Orain, gainontzekoak bezala etxean, gurasoen laguntzaz proposatzen ditugun lanak egiten dabiltz gure ikasleak, baina egia da, irrikitan gaudela bai eurek, bai haiekin lanean gaudenok ere, eskolara itzultzeko eta gure lan egiteko era berreskuratzeko.

Eskolako ikasgaiak lantzen ditugu (matematikak, lengua, ingurune, hizkuntza...) baina metodologia eta baliabide desberdinak erabiliz, horrez gain beste ekintza motak egiten ditugu ere: Sukaldaritza-Tailerra, aldez aurretik antolatutako irteera bereziak, antzerkiak...

Jarduera askoren artean:

Azaroan

Lan Gela

Pagasarriko

igoera

txangoa

egin genuen.

Azeri Naturako lagunei esker, guztiok tontorrera iritsi ginen. Mugikortasun zailtasunak dituen ikasleari erantzuna emanez.

Egokitutako tresnak erabiliz, laguntza zerbitzua eskaini ziguten.

https://azerinatura.com/eu/bloga/

LAN GELA TALDEA

Lan gelako 1.go urtean, txakur terapia egiten hasi ginen. Horri esker, Dani izeneko mutil atsegin bat ezagutu genuen. Berarekin batera, beste ekintza bat burutu genuen, Agility Euskadi klubera joan ginen. Txakurren zaintzaren inguruan gauza pilo ikasi eta haiekin kirola egitera. Aurten, gure mendi martxara etorri zen bere 3 txakurrekin.

Goizean goiz, motxilak prestatu genituen. Barruan, bokatak, ura eta apeta goxoak sartu, makilak hartu eta ilusioz betetak martxan jarri ginen. Egun ederra izan zen Azaroak 25ean bizi izan genuena, zalantzarik gabe, guretzat ahaztezina izango den egun bat. Iraian, ikasturte berriari hasiera emateko Lan Gela, indarberrituta itzuliko da hirugarren urtez, beraz jakin ezazue, gure gelako ateak beti zabalik izango dituzuela, gurekin lan egiteko edo guk nola egiten dugun lan ikusteko.

HH2 Gabonak ospatzen!

Hemen gaude 2 urtekoak gabonak ospatzen. Elkartzeko paregabeko aukera. Olentzero eta Mari Domingiri gutuna idatzi genien eta denok poz pozik, ikastolan dagoen Olentzeroa bisitatu genuen. Laster oporrak hartu eta 2020 urte berria ospatuko genuen, ahaztezina izango zena, denon memorian grabatuta geratuko zena.

Hemendik desio bat: ahalik eta azkarren hau konpontzea eta berriro danok ikastolan elkartzea!

HH3 Urtaroekin ikasten

Udako opor gozoak pasaturik hasi genuen ikasturte berria eta berehala etorri zen udazkena.

Denon artean, lan handia egin genuen gure geletan eta pasabidean udazkenaz gozatu ahal izateko. Gogoratzen duzue? Txorimalo politak egin genituen, horma irudi eder bat, udazkeneko fruituekin merendola gozo bat eta "firin-faran" hostoekin dantzan ibili ginen.

Egutegiko orriak pasatu ahala, etorri zen negu hotza. Gure horma irudia elur malutez bete genuen eta elurrezko panpina ere sortu genuen.

Ordurako, hiru urtaro genituen bizi eta laugarrena ate joka geneukan: UDABERRIA IRITSI DA!

Aurten berezia izaten ari da udaberria. Ez gaude gure ikastolan denak batera, ezin dugu elkarrekin udaberriaz gozatu... baina, egoerak egoera, gure etxeetatik udaberriari keinu txikiak egin dizkiogu: Tulipan txikia eta Azenorio erraldoiaren ipuinaekin, lekaleen ernetze prozesua ikusten... eta birtualki bada ere, lortu dugu denen artean udaberri bereziaz gozatzea!

HH4 Oh Bugi bugi!!!

Aurten gorputza barrutik aztertu dugu eta pilo bat bitxikeri ikasi ditugu:

·Bihotza non dagoen, ze motako lan egiten duen, taupadak zer diren eta zertarakoak....

·Nondik nora joaten den jaten dugun guztia....

·Arnasa hartzen dugunean birikiei zer gertatzen zaien....

Eta hau guztia hobeto ulertzeko bakoitzak bere gorputza sortu zuen. Zein ondo pasatu genuen!!!!!

MESON LA TORTILLA

Gure bereitzasunak, tortillak eta pintxoak
Eguneko menuak
Barran ardo hautatuak eta karta zabala
Gosariak goizeko 8:30etatik aurrera

Blas de Otero, 43 • DEUSTO • Tlf.: 944 472 905 • mikelbarista@gmail.com

2012an Euskadiko kaferik onena sariaren irabazleak

HH5 Korro birtuala

Aurten egoera berezi bat bizitzea tokatu zaigu. Ikasturte ezberdina da eta ikastolan ezin garenez egon modu birtualean lanean jarraitu dugu, baina beti elkarrekin!

Guztiok moldatu dugu lan egiteko era eta classroomen bitartez gai ezberdinak landu ditugu (Dinosauroak, Ingurumena , Erdi Aroa eta Itsasoa). Gure ikasketa buruari esker, Iban Saez, egunero ikasle eta irakasleak harremanak izateko aukera izan dugu korro birtualarekin.

Korro birtualean, egunero makinistaren lana egiten dugu, bertan makinistak zerrenda pasatzen du jakiteko nortzuk dauden etxean konektatuta eta nortzuk ez, zenbatzen ditugu eta ez daudenei abesten diegu. Gero eguneko data eta eguraldia zehazten dugu.

Korro birtualari amaiera emateko ipuina kontatzen dugu. Ikastolan, gurasoak gonbidatuta zeuden ipuinak kontatzera, ezinezkoa izan denez, ideia ona iruditu zitzaigun makinistaren familia berarekin ipuina kontatzea. Mila esker familia!

HH-LH Musika

Etxean egon arren ...

diktaketa erritmikoak, soinu diktaketak, entzunaldiak, abestiak, puzzleak, dantzak, marrazkiak, eta beste asko landu ditugu.

Gauza ederrak sortu ditugu!

FARMACIA OLABARRIETA
LCDA. INMA OLABARRIETA IBARRONDO

Blas de Otero, 51 • 48014 Bilbao
Tfno: 944 473 497 • Fax: 944 476 379

www.farmaciaolabarrieta.com
farmaolaba@euskalnet.net

LH1

LH2

Konfinamendu

LH3

Pedro Martínez Martín Ikastolan

Azaroak 27an Pedro Martinez Martín, Agility Euskadiko zuzendaria, Deustuko Ikastolara etorri zen 3. mailako ikasleei hitzaldi bat ematera.

Txakurrak nola zaindu eta zeintzuk diren haiekin izan beharreko ohitura osasungarriak eta betebeharrak erakutsi, eta Agility-ren inguruan sortu ziren zalantza guztiak argitu zizkigun.

Bere hiru txakurrekin batera etorri zen. Ikasleok eta irakasleok, aukera izan genuen haiekin jarduera batzuk egiteko: jaten eman, aginduak zuzendu...

Agility, txakurren kirol-modalitate bat da. Txakurrek, oztopo-pista baten ibilibidea egiten dute, haien adimena, azkartasuna, kontzentrazioa, soziabilitatea eta bizkortasuna baloratzeko.

Txakur ertain eta txikiek, 18 hilabetetik 10 urtera bitartekoek, agility praktikatu dezakete jabearekin. Agilityk, txakurrak modu dibertigarrian esanak betetzea sustatzen du, eta, aldi berean, jabearen eta txakurraren arteko adiskidetasun-harremanak estutzen ditu.

Pedrok, lehiaketa batean parte hartzeko aukera eman zigun baina datorren ikasturterako utzi behar izan dugu koronabirusa eta konfinamenduak harrapatu gintuelako.

Hitzaldi interesgarria izan zen, gauza asko ikasi genituen eta gainera ikasle guztiak oso adi eta zintzo ibili ziren. Umeek asko disfrutatu zuten eta gauza gehiago ikasteko gogoz geratu ziren.

Centro Visual Argia
ÓPTICOS - OPTOMETRISTAS
Avda. Madariaga, 37 · DEUSTO - BILBAO
Tel.: 94 476 38 83 - 645 76 95 39 · www.centrovisualargia.es

Gafas, lentes de contacto, ortoqueratología, terapia visual (estrabismo, ojo vago...), baja visión

ESPECIALISTAS EN LENTES DE CONTACTO · 10% DE DESCUENTO A ESTUDIANTES DE IKASTOLA DE DEUSTO Y FAMILIARES EN TODO TIPO DE PRODUCTOS ÓPTICOS EXCEPTO EN LENTES DE CONTACTO DESECHABLES

LH4 Bizkaiako Foru Aldundia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

2019-20 kurtso honen hasieran "covid-19" letrak eta zifrak ez ziren inon ageri. Ikastolan hilabeteek aurrera egiten zuten betiko errutinan murgilduta: lagunekin elkartu, irakasleen txapa jaso, jolastu, koadernoak galdu, jolastu, koadernoak topatu jarraian berriz galtzeko, jolastu, baloiak errekreo orduan erabili nahi baina ezin, pasabideetatik korrika egin beti atzera begira andereño edo maisuren bat behar ez den tokian noiz agertuko, bronka jaso, jolastu, jantokian edo etxean bazkaldu, jolastu, antzerkia, marrazketa, xakea, arratsaldeko klaseak jasan betazalei kostata eutsiz, azterketak, algarak, jolasak berriz.

Baina jarduera guzti horien artean ikastolaz kanpo egindako irteerak ere badaude, eta horrela bada, martxoan Bizkaiko Foru Aldundia ezagutzera joan ginen.

Gizarte Zientziak irakasgaian lurraldeen antolaketa nola gauzatzen den landu berri genuen, eta aukera ezin hobea izan zen liburuetatik errealitatera salto egiteko.

Aldundiko jauregiaren barruan sinbolismoz jositako apaingarriak aztertu genituen. Bazeuden Bizkaiko historiaren garapenaren berri ematen zuten beirateak, eta baita soro eta industria ezberdinen irudiekin margoztutako sabaiak ere. XIX. mendeko artelan batean lehoi bat margoztea boteretsu izatearen sinonimo zela ikasi genuen, eta gaur egungo janzkeren aurreko arropak nolakoak ziren ere erakutsi ziguten. Hori gutxi

balitz, orduko eta oraingo zigorrak guztiz ezberdinak zirela kontatu ziguten. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundian behatutako koadro baten arabera, txarto portatzen ziren pertsona batzuk balkoitik behera botatzen zituzten garai hartako bilbotarrek. Lasaitu ederra hartu zuten ikasleek irakasleek zigor modu hori aintzat hartuko ez zutela zin egin zutenean.

Eraikin bat jauregi izan dadin gela guztiek elkarren artean konektatuta egon behar dutela jakin genuen, eta aspaldiko pertsona garrantzitsu batek Bilbo hiribilduari oparitutako pitxer garesti-garestia hurbiletik ikusi ahal izan genuen. Eskerrak inork estropezu egin ez zuenik...

Pozik bueltatu ginen Ikastolara, baina aste pare baten buruan bizitza hankaz gora jarri zigun birus arraro batek. Co-sars-2 deitzen omen zen, nahiz eta denok "Koronabirus" izenarekin ezagutu, eta bere ondorioz gizakiok pairatutako gaixotasunaren izena, ordura arte existitzen ez zen "Covid19" gisa izendatu zuten. Kurtsoa berrogeialdi egoeran bukatu behar izan genuen, etxean ikasten, ikasgeletara bueltatu barik.

Hemendik urte batzuetara, beharbada, gu geu aterako gara Gizarte Zientzietako liburuetan, sasoi honetan bizitzen gabiltzan egoera berezi honen lekuko. Eta akaso, batek daki, etorkizuneko Ikastolako ikasleek Bizkaiko Foru Aldundiari bisita egiten diotenenan, koro itxura daukan birus baten marrazkia topatu beharko dute sabaietako pinturen artean.

LH5 Urdaibai - Birdcentre

2019-2020 ikasturtea berezia izan da, eta hori dela eta txango bakarra egiteko aukera izan dugu bostgarren mailakoek, dena den, primerako eguna pasa genuen Busturialdean! Txangoa Urdaibain kokatzen den Birdcentre-ra egin genuen, Azaroak 7an.

Goizeko 9:00etan autobusa hartu eta bertara hurbildu ginen. Birdcentre-ra heldu ginenerako hiru begirale gure zain zeuen, hiru taldetan antolatu gintuzten eta bakoitza zentroko leku batetara joan zen. Bertan, hegaztien inguruko hainbat alor ikasteko aukera izan genuen, besteak beste: migrazoak, elikadura, ugalketa, kumeen eboluzioa, espezien zainketa... Baina ez pentsa teoria hutsa kontatu zigutenik, ezta inondik inora ere! Birdcentre-n txorien inguruko informazioa jaso ostean txoriak geure begiekin ikusteko aukera ere izan genuen, katalejo erraldoi batzuekin. Urdaibai aldean Arrano arrantzalea izeneko hegazti bat bizi da urteko sasoi batzuetan eta zorionez, gu joan ginen egunean hurbil-hurbiletik ikusteko aukera izan genuen, eta benetan bere koloreak, hegoen tamaina... harrigarriak dira!

Bisita amaitutakoan, gure gauzak batu eta bazkaltzera joan ginen Arteaga-ko frontoira, egun euritsua egokitu zitzaigun eta. Bazkal ostean, orduak pasa genituen jolasten: baloi eserira, futbolera, saskibaloira, kartetara... Errepikatzeko eguna izan zen!

LH6

Konfinamendua Bertsotan

Martxoaren hamabian
jakin zena eguerdian
klase presentzialak
zein bilera zabalak
ezin zitezkeela egin
dena zen horren desberdin

martxoaren hamairuan
klasea barikuan
baina guztiok etxean
kuarentenan sartzean
eta ordutik hona
daukagun zoriona

ikastolan beharrean
pantaila baten aurrean
Meet edo eta Hangout
orain in eta gero out
gabitza gu barikuro
konektatuta seguro

ikasleen wifia
sarearen magia
bat sartu ta bi atera
nor dator gure bidera?
piztu mikrofonoa
barkatu, ni banoa

ez, ezaitugu entzuten
ahotsak ezin du irten
zein ote gaurko lotura?
ezin dut sartu barrura
Clasroom-ean jarri dizut
ikusi dezakezu zuk?

zuzendu eta bueltatu
izenak apuntatu
pasatuko dut zerrenda
hemen dena ikusten da
Unax, Mikel, Ainara
Malen, Aimar, Aiala

Eneko, Eider, Noor
Nahia, Haitz ta Ibon
zein ondo denok klasean
Meet Hangouts-aren haizean
dugu bertsolaritza
teknologia eta hitza

errimatuko ditugu
mikroz mikro, buruz buru
Chromebook-a gure oholtza
burmuina eta bihotza
sorkuntza denez librea
sare sozialen bidea

gora bideo txata
Google Drive eta WhatsApp-a
lehenik kantu bat entzun
denok gozatu dezagun
igo igo bolumena
piztu dadin entzumena

lehenik Ai Zapotxin
gaur badago zer egin
zeren gure ikasleak
dira euskara zaleak
bertsotan egiten dute
doinu berriaren truke

inprobisatzen hasi
hitzak lotzen ikasi
bakoitza bere logelan
badago hainbat talde lan
nik badaukat bertsoa
erdia, ez osoa

ai, ahaztu zait barkatu
nahi nuke berriz saiatu
orain dator zure txanda
eta bertsoak eztanda
konfinamendua da gai
ideia berri baten zai

txaloak zortziretan
balkoiko ertz batetan
abestuko dut jakina
bertso klasean egina
auzoko guztientzat
ahotsa badaukat behintzat

konektatu bertsora
errimak behera, gora
doinuaren uhinean
silabak sartu heinean
sortzen doa hizkuntza
burua ta gorputza

ta horrela klasea
lehenengo fasea
bukatu zaigu ordua
bilatu dugu modua
elkarri entzuteko
elkar besarkatzeko

ta orain gelan ez bezala
dena denez birtuala
eskua gora altxa
amaitu zaigu dantza
agur denori agur
bai, bai, eta jan yogur

ze txiste mitikoa
oso aspaldikoa
atea itxi gabe
naiz saguaren jabe
beraz hor X gorria
sakatzeko ausardia

ta amaitu da jaia
bertsoaren bidaia
ez ate ez pasabide
logelan dena da libre
ez dut aterik itxi
agur Skype ta Jitsi

zarratuko dut leihoa
itzaliko bideoa
windows-ari kortina
ipini diot fina
hurrengo asterarte
teknologia bitarte
nire ikasle maite
super onak zarete!

Iñaki Iturriotz
(Segidilla erritmoan)

English Corner

Hello English corner followers!

This school year third term has been quite unusual. We've suffered a very hard lockdown due to Covid 19, that's why we almost haven't got photos of our children inside the ikastola.

We've prepared some collages with photos sent by our pupils or taken from the works already done at school before the lockdown.

Infants made fantastic crafts and drawings and they are happy to show them to you.

1st, 2nd an 3rd graders watched some videos to learn how to make beautiful handicrafts and here you are the result.



4th graders made some posters and computer documents so they could present them orally.

5th and 6th graders sent us photos of their art works done in the English workshops at school or at home. They also watched some videos with the instructions.

We hope you like our works. If you want to learn how to make them just click on the following links and enjoy.

https://www.youtube.com/watch?v=AUJwXAcQ058
https://www.youtube.com/watch?v=LYzkYaS8I8Q&list=PLMNCHwzJENsLq93iAqGB_dU_M2Thb3YnX&index=7
https://www.youtube.com/watch?v=y6AkXv61SdA&list=PLMNCHwzJENsLq93iAqGB_dU_M2Thb3YnX&index=9
https://www.youtube.com/watch?v=5HDOtag9PZY&list=PLMNCHwzJENsJOuVyVz_IYRAfzosKzH_bK&index=9
https://www.youtube.com/watch?v=5KBAaXvPgcM&list=PLMNCHwzJENsJOuVyVz_IYRAfzosKzH_bK&index=12
https://www.youtube.com/watch?v=KnZQYXPJnXU

LH6

ANTZEZPENA IKASTOLAN

Ikasturtean zehar hainbat joku, ariketa eta istorio ederrak asmatu, kontatu eta antzeztu ditugu. Haur Hezkuntzako umeen aurrean Olentzero ipuina antzeztu dugu ere.

Den dena oso era praktiko eta dinamikoan egiten ibili ondoren etxetik antzezpena egitea tokatu zaigu

Erronka handia izan da antzezpena, ikasgelatik etxera eramatea.

Lana guztiz ezberdina izan arren, idatziz eta irudikatuz, lan ederrak sortu ditugu bakarka zein taldean.

Ikasturte amaieran ezin dugu antzerkirik aurkeztu zuen aurrean, baina musika gelan izango dituzue gure ikastolan bizi izandakoak gogoratzeko egindako ipuinak, kontakizunak eta komikiak zuek agurtzeko.

LAGVN ARTEAN
Luis Power, 16
Tfno: 944 759 626

✓ DESAYUNOS, PINTXOS Y TRAINERAS
✓ COPAS Y AMARILLOS

✓ GOSARIAK, PINTXOAK ETA TRAINERAK
✓ KOPAK ETA HORIAK

DBH1

Zein urrun gelditzen zaigun ikasturte hasiera!

Udatik bueltatu, ikastolara heldu eta jarraian jende berri pilo bat, irakasle berri guztiak, solairu berria, ordutegi berria... Ikasturteari hasiera bikaina emateko biologia-geologiako departamentuak irteera bat antolatu zuen Arboledara!

Bertan geundela, bi taldetan banatu gintuzten, aldi berean bi ekintza desberdin egin ahal izateko. Batzuk tirolina egiten zuten bitartean, besteok museoa bisitatu genuen eta alderantziz.

Eguerdian zaldiak inguruan genituela bazkaldu genuen berdegune bateko mahaietan. Bazkaltzen genuen bitartean, beste klasekoekin harremanak sendotzeko eta ikasle berriak hobeto ezagutzeko aukera aparta izan genuen.

Kurtsoa aurrerantz zihoala, oraindik ez genuen ikasle berri batzuekin ezta hitz egin ere; eta horretarako, euskararen egunean, jende gehiago ezagutzeko, klase nahasketa jokoak egin genituen. Eta euskara gehiago bultzatzeko, DBHkoek gela apainketa egin genuen. Nahiz eta dena eman, ez genuen lortu DBH2-koei irabaztea.

Konturatu orduko, inauteriak gainean izan genituen! Urtero legez, txirigotak ilusio handiz prestatu eta antzeztu genituen. Hurrengo egunean, triviala , herri kirolak, jokuak, pikeak, mozorroak, epaimahaia igaro ostean, honetan bai, errebantxa hartu genien DBH2-koei eta irabazi egin genien! Bigarren ebaluazioa bukatu berri zela, eta hirugarrena hastear zela, nork pentsatuko zuen ikasturtea etxean bukatuko beharko genuela?

Aines Basterra, Mikel Orbe, June Rodriguez

DBH2

KAYAK-SUP. DBH 2.A

DBH 2.A mailako ikasleek ekintza honetan parte hartu genuen hiru astez. Aste bakoitzean ekintza desberdin bat egiten genuen, baina guztiak Bilboko errekan egitekoak ziren. Lehenengo astean, kayak egin genuen, ekintza horretarako binaka jarri ginen, bigarren astean, big padel-surfean aritu ginen, taula oso handia denez, klasea bi taldetan banatu eta taula bakoitzeko 10 petsona sartu ginen, hirugarren astean, big padel surf eta padel surf egin genuen, honetan ere bi taldetan banatu eta talde batek big padel surf egiten zuen bitartean beste taldeak padel surf egiten zebilen, klase erdian, ekintzaz aldatu genuen.

Ekintza hauek Heziketa Fisikoko ikasgaian egin genituen, beraz, astero bi orduz gindoazen Euskalduna Zubia ondora, eta bertan bi moniotore zeuden guri irakasteko. Zorte ona izan genuen, izan ere, egun eguzkitsuak atera zitzaizkigun, eta nahiz eta egun batean zeru lainotsua izan, tenperatura ona izan genuen.

Gure ustez, ekintza oso dibertigarria izan zen, gainera, kirol hauek gehiengoarentzat berria zenez, asko ikasi genuen. Bestalde, Heziketa Fisikoa Nerbioi ibaian egitea oso aldaketa interesgarria iruditu zitzaigun ohituta ez gaudelako. Gure iritziz, taldeko lana gehien nabarmendu zen ikasketa izan zen, uretara ez jausteko guztiok ados jarri behar ginelako eta klase moduan laguntasuna landu genuen, guztiok ondo pasatzera gindoazen eta.

Joane Bañuelos eta Zaloa Aretxaga

Ikastola orduetan uretan (KAYAK eta SUP). DBH 2.B

Azaroan egin genuen. Ostiraletan 8:50 klasetik irteten ginen eta 9:00 gutxi gorabehera heltzen ginen Karola ondora.

Gorputz Hezkuntzako ikasgaiko orduetan egin genuen eta gero patio denbora eta gizarteko minutu batzuk lapurtzen genizkion Liberi, dutxa hartu behar genuelako.

Eguraldia gehienetan oso beroa eta eguzkitsua izan zen baina egun batetan hotz asko egin zuen, baina orokorrean ederto.

Guk biok asko baloratzen dugu, pila bat gauza ikasi genituelako, eta oso ondo pasatu ere. Gainera arraun egiten ikasi dugu da eta talde lana egiten oso ondo ibili gara. Errepikatu behar dugu!!

Lehenengo egunean Lorea eta biok oso ondo pasatu genuenez ez ginen uretatik irten nahi. Azkenean begiralea etorri zen eta korrika bizian irteteko esan zigun.

Argi eta Lorea - DBH 2B

KAYAK-SUP. DBH 2.C

DKayak eta SUP ariketak heziketa fisikoko saioetan egin genituen, arratsaldeko saioak izan ziren, 14:45tik 16:00etara, hamabost minutu ematen zizkiguten arropaz aldatzeko eta bukatzean beste hamabost minutu dutxatzeko eta lehortzeko eta azkenik ikastolara bueltatzeko bost edo hamar minutu.

1 hiruhilekoan izan zen, urriaren 7an. Gehienetan eguraldi ona izan genuen baina egun euritsu bat ere izan genuen.

Esperientzia oso polita izan zen, irakasle oso jatorrak zeuden eta kirol oso interesgarria eta dibertigarriak izan ziren. Bi ur-kirol mota gehiago daramatzagu bihotzean eta uretako tresnak erabiltzen ere ikasi dugu. Gertaera barregarri bat izan zen ibaitik zihoan turista bat, guri argazkiak ateratzen hasi zenean guk ariketa egiten genuen bitartean. Bitxikeri moduan esan dezakegu ariketa bukatzean, denbora bagenuen, ibaian igeri eta jolasean ibiltzen uzten zigutela eta ederto pasatzen genuela.

Datorren urtean berriro!!

Mara Rodríguez eta Xabier Vega

DBH3

Aitabitxi-Amabitxi Proiektua

Noiz joango gara? DBH3ko ikasleen egonezina nabaria zen LH2ko umeengana joango zirela entzuterakoan. Egunak luze eta orduak astiro, unea heltzerakoan, nagusiak urduri agertu ziren: eta ez badut ondo Irakurtzen? Eta totelka hasten banaiz?

Aitabitxi-amabitxi lanetan jardutea gauza serioa da, izan ere, Irakurtzen hasi direnei irakurketarako grina kutsatzea ez da kontu erraza nagusiei liburu bat eskuartean hartzea ere kostatzen zaigunean. Baina umeak tartean direla...egoera guztiz aldatzen da.

Beren burua aurkezteko kanta eta gutuntxoak umeei bidali ondoren, haien erantzun xamurrak jaso zituzten,

ezin gutun politagoak! Eta, umeek eta nagusiek bat egin zuten egunetan, gutxien espero genuenak ere adi entzun eta gustura jarduten zuen nagusiaren kontaketan eta elkarrizketan.

DBHko ikasleak harrituta bueltatu ziren geletara: zeinen momentu atsegina izan dugun! Eta... zeinen ondo Irakurtzen duten!

Berrogeialdi honetan kontaktuan jarri ditugu. Jaso ote dute elkarren arteko mezurik?.

PASTELERIA - BOMBONERIA
California
Tu pastelería de siempre
Avda. Madariaga, 9 DEUSTO • 48014 BILBAO
☎ 944 751 357

DBH4

L´Atelier Du Chocolat

Bonjour tout le monde!

Urte hau guretzat, DBH4ko ikasleentzat, azken urtea da ikastolan eta nahiko laburra izan da, baina aukera izan dugu txangoren bat egin ahal izateko; adibidez, 2019ko abenduan, Baionara joan ginen 4. mailako ikasle guztiak.

Alde batetik, Frantseseko ikasleak joan ginen, eta beste aldetik, gainerako ikasleak. Frantsesekoak txokolate fabrika bat bisitatu genuen. Fabrika kanpotik ez zen oso ikusgarria, baina turistek egiten duten bisita oso polita da, izan ere irudi asko ditu eta oso ondo eginda dago turistentzat. Lehenengo, bisita gidatu bat izan genuen fabrika osoan zehar. Gero, pare bat minutu utzi zizkiguten lantegia gure kabuz ikusi ahal izateko. Ondoren, bertan egiten diren hainbat txokolate dastatu genituen. Mota askotariko txokolateak zeuden, guztiak super goxoak!

Hori bukatutakoan, hantik atera eta Baionara joan ginen. Baiona hiri izugarri polita da! kaleak garbi-garbi eta parkeak oso ondo zainduta daude. Gainera, etxeak baxuak eta argiak dira eta leiho bitxiak dituzte. Gauza batek harritu gintuen: hirian autoak gidatzea debekatuta dago. Han ginkana moduko batean jolastu ondoren denbora librea izan genuen.

Urte hau ez da guk pentsatzen genuen bezalakoa izan, baina gutxienez, txango ahaztezin bat bizi izan dugu. Horregatik, ez gara triste jarri behar orain egin ez ditugun gauzetan pentsatzen; aldiz, egin ditugun gauzetan pentsatu egin behar dugu.

Au revoir!
4.DBH-ko ikasleak

Sabin
ERLOJUDENDA
BITXIDENDA
1964tik Deustun zuekin

Rafaela Ybarra, 6 • 48014 DEUSTO - Bilbao • Tel.: 94 475 63 16

Gure azkenengo ikasturtea ikastolan

Egun hauek etxean igaro ditugu, zaila izan da honelako egoera bati aurre egitea. Dena Matxoaren 13an hasi zen, jadanik bi hilabete pasatu dira, etxean harrapatuta gaudenetik. Ikas bidaia kolokan jarri zitzaigun konfinamenduan sartu ginen momentuan eta konturatu ginen egoera honetan oso zaila izango zela Saloura joatea. Egunak igaro ahala, gero eta askeagoak sentitzen gara, baina oraindik birusaren mendean gaude.

Guretzako zaila da egoera hau, egunak pantailen aurrean igarotzen ditugu, etxeko lan birtualak egiten edota pelikula eta serieak ikusten. Noizbehinka, kalera irtetzen gara eta aire pizka bat hartzen dugu. Horrek, egunak entretenigarriagoak egiten dizkigu. Aurten, ikasbidaia egiteko asmoa geneukan, urtero bezala Saloura joango ginen. Ikusi duzuen bezala urtean zehar tortilak eta bizkotxoak saltzen egon gara, ikasbidaia ordaindu ahal izateko. Egoera ikusita, ikasbidaia ekainera atzeratu genuen, baina azkenean ezinezkoa izango da egitea. Beste alde batetik, egoera hau positiboki begiratu behar dugu, geure burua eta gaitasunak hobeto ezagutzen lagundu baidigu.

Gure lagunak urrun egon arren, gure artean hitz egiten jarraitzen dugu sare sozialak erabiliz edo bideodeiak eginez. Sarritan, etxeko lanak taldeka egiten ditugu, ulertzen ez ditugun lanak ondo egiteko edota talde lana lantzeko.

Jakingo duzuenez hau gure azken urtea da, eta pena handia ematen digu era honetan amaitu behar izana. Badakigu egoera hau luzerako doala baina gu gogotsu gaude hurrengo saltoa emateko, ikastola atzean uzteko eta birusa gainditzeko. Espero dugu dena normalitatera itzultzea eta uda on bat pasatzea. Sorte on beste ikasle guztiei.

Josu Orbe eta Asier Albizu

Antzezle lanetan gizarte hobea eraikitzen

Aurten, DBH 4. mailakoak jarduera berri batean ibili gara: antzerkigintzan. GizARTE (Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea) proiektuaren barruan proposatutako jarduera izan da, arte adierazpenen bidez gizarte baloreak lantzeko asmoa izan duena. Gure kasuan, nerabeen arteko maitasun harreman osasuntsuak lantzea izan dugu helburu, hau da, oraingo zein etorkizuneko harreman bortitzak ekiditea. Horretarako, astean behin, Euskara orduetan, interpretazioa landu dugu, eta bide batez, hizkuntza ere bai. Unai Baiges izan da gure irakaslea eta bere laguntzarekin gauza politak ikasi ditugu arte honi buruz. Bestelade, gure artean errespetuzko harremanak garatzeko tresnak landu ditugu.

Lehenengo egunetik argi utzi ziguten ez ginela aktore handiak izan behar arlo honetan nota ona jasotzeko, jarrera parteartzaile eta gogotsu batekin nahikoa zela baizik. Bizitzako edozein arlotan zerbait ikasi ahal izateko hori baita behar dena.

Urtearen hasieran, gorputz adierazpeneko zenbait teknika landu genituen. Une hartan ez ginen hainbeste zentratu ahozkotasunean, istorioak keinuen bidez kontatzen genituen eta gure gorputzekin jolastu ginen. Bertan ohartu ginen gorputz adierazpenaren garrantziaz.

Gero, arreta berezia jarri genion ahozkotasunari antzerki mota berri bat landuz: teatro foro deiturikoa. Horren bidez ikasi genuen nola erreakzionatu dezakegun interpretazioaren laguntzaz injustizia sozial baten aurrean, eta jarrera matxistei nola egin diezaiekegun aurre. Frogatu genuen antzerkigintzaren helburua ez dela soilik istorioak kontatzea edo sentimenduak transmititzea, mezu bat edo kritika sozial bat ere egin dezakeela, eta horrela mundua aldatu.

3. ebaluazioan gure ikasturte amaierako antzezlana landu behar genuen. Gidoia idatzita zegoen jada, antzezlan musikatu handia egitea zen gure asmoa. Baina birusa heldu eta gure mundu arrunta bat-batean gelditu zen. Proiektua bertan behera uztea pena zenez, eta pertsona guztiok zein jarduera guztiak egoera berezi berrira egokitu behar izan dugunez, antzezlana online egitea eta horrela gure lana grabatzea proposatu zigun Unaik, horrela egin dugu eta horrela eman diogu amaiera jarduera honi.

Aurton proiektu honetan parte hartu dugunon ustez, jarduera honetan aritzea oso aberasgarria izan da. Asko ikasi dugu interpretazioari eta atzean dakarren lan handiari buruz, aurretiaz arlo honetan ibili ez garenontzako ekarpen handia izan da. Aurrerantzean, antzerkigintza beste perspektiba batetik ikusiko dugu eta maitasun harremanetan ere kontrolari eta biolentziari aurre egiteko baliabide gehiago izango ditugu.

Oihana Acuña

DBH

Musika - DBHko Ukelele Kluba

Soinu zirraragarri batek Ikastolako pasabideak zeharkatu ditu azken urte honetan. Kurtso hasieran musika ikasgaian proiektu berri bat abiarazi genuen DBHko 1. zikloan. Izan ere, gazteei musika-tresna bat jotzeko aukera eskeini nahi genien eta zein musika-tresna hobea ukelelea baino: garai honetan gazteen artean arrakasta handia duen musika-tresna, hain zuzen ere. Pozik jarri ziren ikasleak berria entzuterakoan.

Berehala etekina ateratzen zaion musika-tresna da ukelelea, lehenengo egunetik abestiak jotzen ikasi dugu akorde gutxi batzuekin eta teknologia berriek eskeintzen dizkigun baliabideen laguntzaz. Musikari profesionalak ematen dugu, adi-adi atzamarrei eta akordeei begira. Honela, Lasai-lasai (Huntza), Faded (Alan Walker), Zombie (The Cramberries) eta Apologize (OneRepublic) bezalako kantak jotzen ikasi ditugu. Hain agerikoak ez diren ikasketak ere egin ditugu, arreta mantentzea eta norberak eta besteek sortutako musika baliostea batik bat. Musika ikasgaiak bere lekua hartu du ukelele proiektuarekin.

Koronabirusak eragindako itxialdiak ukeleleen soinua eta oro har Ikastolako egunerokotasuneko algara, irri eta solasaldiak isilarazi ditu egun batetik bestera. Argi geratu da bestalde, musikak eta arteak orokorrean berebiziko garrantzia hartu duela Covid-19ak sortutako krisialdi honetan, norberaren sentimenduak eta barreneko zirrarak kanporatzeko tresna bikain bezain beharrezkoak baitira. Jarrai dezagun beraz ukelelerekin musika sortzen eta barrenak astintzen.

BIBLIOTEKA

Deustuko Ikastolako Biblioteka liburutegi bat baino askoz gehiago da: lagunen arteko elkargunea, aisialdirako lekua, literatura mundu berrien erakuslehioa, pertsona bakoitzaren interesak ezagutarazteko bozgorailua. Bertan irakurri, hitz egin, eztabaidatu, ikasi, elkar entzun eta bakoitzaren irudimen eta sormenaren bidez egunero sortzen dugun lurralde berria da.

Hemen dauzkazue adibide batzuk:

5 urteko haurrak irakurtzen

Bibliokubekoak lanean

basoa
the perfect gift company
Enpresetarako opariak

C/ Blas de Otero, 15 48014 - BILBAO
Tel.: 902 197 409 . Fax: 944 483 129
E-mail: comercial@basoa.com

Biblioteka Gabonetarako apainduta

1. mailakoak Bidarteko bibliotekan Peio Añorgarekin

Hitzaldiak betiko moduan

...eta konfinamendu moduan

Arilla
Blas de Otero, 32 - Tel. 944755256
Deusto BILBAO - 48014

Gure argazkiak

Deustuko Ikastola

HH2

A

B

A GOIKO LERROAN: IZADI FERNANDEZ, JONE AKARREGI, MARKEL MIGURA, AIUR UGALDE, HAIZENE LAUCIRICA, ERIK GONZALEZ, ELENE ARRANZ, ALAINE AZKORRA 2. LERROAN: IRAIA PRESA, LIER RON, HODEI OMABEITI, EKAITZ GARMENDIA, AISHA PUENTE, URTZI FERNANDEZ, LUR YAÑEZ, ALAIA PRIETO. IRAKASLEAK: JOANA MUÑOZ ETA LEIRE PUENTE. FALTA DIRENAK: OIHANE GUINEA.

B GOIKO LERROAN: LUR MELLADO, URKO RODRIGUEZ, OIER UNDABARRENA, AMETS ZAPIRAIN, PILAR ADARA PEREZ, NORA PEREZ, PATRICIO ROSENBERG. 2. LERROAN: INAR GUINEA, MALEN ALVAREZ, AITOR AZKAGORTA, MIKEL SARRIONANDIA-IBARRA, AIARA BARRERAS, IRATI NAVARRO, MALEN REMIREZ, JULE ETXEBARRIA. IRAKASLEAK: IBAN.

A GOIKO LERROAN: JON LARA, AMETS OMABEITI, IHART IZKARA, HEGOA MARTINEZ, TELMO DIEZ, EKHI EIZAGIRRE, EKAIN LOPEZ DE LA MANZANA, AIHOA LASIERRA, ERICK ESCUDERO, IZAN ATXA, NORA SAEZ, OINATZ MADARIAGA. 2. LERROAN: LIBE MOCHALES, ALAIA CALZADA, MIREN SANTIAGO, EDER MOLLA, NAIA RABINAL, MAIALEN ACILLONA ELEDER IÑURRATEGUI, ANER MARTINEZ, HAIZEA LANDETA, JULEN ZARAUTZ. IRAKASLEAK: EDURNE GURTUBAI FALTA DIRENAK: MARKEL ITUARTE.

B GOIKO LERROAN: ENDIKA RODRIGUEZ, JOANES EZENARRO, ARATZ KORTABARRIA, IZEI EMILIO, AINHOA MONTEVERDE, UHAITZ LANDA, LEILA TOUAYLI, LEIZE AZKUE, MALEN AKARREGI, NORA NIETO, XABIER OVIAMIONAYI, UNAX ITURRIOZ. 2. LERROAN: ERIN LANDARIBAR, LUKEN CAPETILLO, LEO GIL, XUBAN ORTUZAR, AMETS IDARRAGA, NOA ESCUDERO, KATALIN ESCUDERO, PEIO ORTIZ, NILE CACHORRO, NORA LANDETA. IRAKASLEAK: AMAIA BUEN. FALTA DIRENAK: EDER FERNANDEZ.

HH4

A

B

A GOIKO LERROAN: URKO BENITO, JUNE BARRIOCANAL, LIA CUESTA, PAULE CARAZO, BRUNO BARDON, ZAIR ADRIEL SALINAS, EKAIN JIMÉNEZ, AINGERU FERNANDEZ. 2. LERROAN: URDAX BILBAO, AGER GOROSTIZA, GARAZI MARTÍNEZ, ARWEN GONZALEZ, IRAIA GUTIÉRREZ, KIMETZ ARTETXE, ARITZ ALLICA. 3. LERROAN: PELLO ROBLES. IRAKASLEA: NAGORE ORTEGA. FALTA DIRENAK: BEGOÑA YADIRA FALAGHAN, JONATHAN FREIJOMIL.

